

GRADU AMAIERAKO LANA

**BIBRAZIO MEKANIKOEN ETA
ISOLAMENDUAREN IKASKETA
TEORIKOA**

Jone Fernández Lavilla

Teknologia Industrialaren Ingeniaritzako Gradua

Zuzendaria: Mónica Urizar Arana

2017-2018 IKASTURTEA

LABURPENA

Dokumentu honetan, bibrazio mekanikoen isolamenduen inguruko ikasketa teorikoa egingo da. Horretarako erabiliko den sistema, kotxe baten erduketa izango da, eta aztertuko dena, ibilgailuak errepidetik ibiltzean jasandako mugimendu bertikalak izango dira.

Modeloan hiru plano nagusi bereiztuko dira: beheko planoak errepidea irudikatuko du eta mahai kitzikatzaila izango du, kanpo indarra sartzeko; erdiko eta goiko planoetan bi masa jarriko dira, erdikoak gurpilen masa irudikatuko du eta goikoak txasisarena. Hiru planoak malguki bidez lotuko dira eta bibrazioen isolamendua egiteko erabiliko den absortsorea (masa eta malguki batez osatuta), goiko planoko masari lotuko zaio.

Askatasun gradu (AG) anitzetako bibrazio behartu ez motelduen teoria erabiliz, sistemaren bibrazio moduak eta maiztasun naturalak kalkulatuko dira. Gainera, sistemaren erantzunak kalkulatuko dira, errepidea irudikatzen duen kanpo indarren sarreraren menpe. Absortsorearen diseinua egiteko, bibrazioei buruzko teoria bera erabiliko da.

Lan guztia aurrera eramateko, Mekanismoen Teoria eta Bibrazio Mekanikoak (MTBM) irakasgaien ikasitakoaz gain, kalkuluak erraztuko dituzten programak erabiliko dira, Mathematica, Excel edo Octave, esaterako.

RESUMEN

En este documento se realiza un estudio teórico del aislamiento de vibraciones mecánicas. El sistema que se va a utilizar es la modelización de un coche, y se va a analizar el movimiento vertical del vehículo al circular por carretera.

En el modelo se distinguen tres planos principales: el plano inferior representa la carretera y será una mesa excitadora, para así mover el sistema mediante fuerzas externas; los planos medio y superior tienen una masa cada uno, la central representa la masa de las ruedas y la superior el chasis. Los tres planos se unirán mediante resortes y el absorbente (formado por una masa y un resorte), que se utilizará para reducir las vibraciones, irá unido a la masa superior.

Utilizando la teoría de vibraciones para sistemas con varios grados de libertad, vibraciones forzadas y no amortiguadas, se calcularán los modos de vibración y las frecuencias naturales del sistema. Además, se calcularán las respuestas del sistema, dependientes de las fuerzas exteriores, representativas de las irregularidades de la carretera. Para hacer el diseño del absorbente, se utilizarán los mismos conceptos sobre teoría de vibraciones.

Para llevar a cabo todo el trabajo, además de lo estudiado en la asignatura de Teoría de Mecanismos y Vibraciones Mecánicas, se utilizarán programas como Mathematica, Excel u Octave, los cuales facilitarán los cálculos a realizar.

ABSTRACT

In this document, a theoretical study of the isolation of mechanical vibrations is carried out. The system to be used is the modeling of a car, and the vertical movements of the vehicle while driving on the road will be analysed.

In the model, three main planes can be distinguished: the lower plane represents the road, and it will be an exciter table, in order to move the system by external forces; the middle and upper planes will have one mass each, the one in the centre represents the mass of the wheels, and the upper one the chassis. The three planes will be joined by springs and the absorber (formed by a mass and a spring), which will be used to isolate vibrations, will be attached to the upper mass.

Using the theory of vibrations for systems with more than one degree of freedom, forced and undamped vibrations, the vibration modes and natural frequencies of the system will be calculated. In addition, the responses of the system, which depend on the external forces that will represent the irregularities of the road, will be calculated. To design the absorber, same concepts on theory of vibrations will be used.

To carry out all the work, apart from what has been learnt in the Theory of Mechanisms and Mechanic Vibrations subject, programs such as Mathematica, Excel or Octave will be used, as they will be helpful to make the calculations.



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	4
1. TAULA, IRUDI ETA AKRONIMOEN ZERRENDA	6
1.1. TAULEN ZERRENDA	6
1.2. IRUDIEN ZERRENDA.....	6
1.3. AKRONIMOEN ZERRENDA	7
2. SARRERA.....	8
3. TESTUINGURUA.....	9
3.1. APLIKAZIO EREMUA	9
3.2. JAKINTZA EREMUA	9
3.2.1. BIBRAZIOEN TEORIA.....	9
3.3. BIBRAZIO MEKANIKOEN ISOLAMENDUA	10
3.3.1. METODO AKTIBOAK	10
3.3.2. METODO PASIBOAK	11
3.4. BIBRAZIOEN ANALISI ESPERIMENTALA.....	11
3.5. FLUXU DIAGRAMA.....	11
4. IRISMENA ETA HELBURUAK	13
4.1. IRISMENA.....	13
4.2. HELBURUAK.....	13
4.2.1. HELBURU NAGUSIA.....	13
4.2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK	13
5. ONURAK.....	15
6. ALTERNATIBEN ANALISIA	16
6.1. EREDUAK.....	16
6.1.1. NAZIOARTEKO ZIMURTASUN INDIZEA.....	17
6.2. KITZIKADURA. BIBRAZIO BEHARTU MOTA.....	19
6.2.1. BULKADA FUNTZIOA SARRERAN	19
6.2.2. MAILA FUNTZIOA SARRERAN	20
6.2.3. MALDA FUNTZIOA SARRERAN	20
6.2.4. KITZIKADURA HARMONIKOA SARRERAN.....	20
7. SOLUZIOAREN AUKERAKETA	21
7.1. EREDUAREN AUKERAKETA	21
7.2. KITZIKADURA MOTAREN AUKERAKETA	21

8. METODOLOGIA.....	22
8.1. BI ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA.....	22
8.1.1. MUGIMENDUAREN EKUAZIOAK	22
8.1.2. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK	23
8.1.3. BIBRAZIO MODUAK.....	26
8.1.4. SISTEMAREN ERANTZUNA.....	26
8.2. HIRU ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA.....	27
8.2.1. MUGIMENDUAREN EKUAZIOAK	27
8.2.2. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK	28
8.2.3. ABSORTSOREAREN DISEINUA ETA SISTEMAREN ERANTZUNA	28
9. KALKULUAK.....	30
9.1. DATUAK.....	30
9.2. BI ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA.....	30
9.2.1. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK	30
9.2.2. SISTEMAREN ERANTZUNA.....	31
9.2.3. BIBRAZIO MODUAK.....	33
9.3. HIRU ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA	35
9.3.1. ABSORTSOREAREN DISEINUA ETA SISTEMAREN ERANTZUNA	35
9.3.2. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK	36
9.3.3. ABSORTSOREAREN ERAGINA	36
10. ZEREGINEN DESKRIBAPENA. GANTT DIAGRAMA	38
10.1. ZEREGINEN DESKRIBAPENA.....	38
10.2. GANTT DIAGRAMA	39
11. OINARRIZKO TEKNIKA ETA BALIABIDEAK.....	41
11.1. MATHEMATICA	41
12. AURREKONTUA.....	42
14. KONKLUSIOAK	43
15. ERREFERENTZIAK	45
ERANSKINAK I: MATHEMATICA KODEA	46
ERANSKINAK II: LABORATEGI PRAKTIKA.....	63

1. TAULA, IRUDI ETA AKRONIMOEN ZERRENDA

1.1. TAULEN ZERRENDA

Taula 1. Ereduaren ezaugarriak.....	30
Taula 2. Mahai kitzikatzailearen ezaugarriak.....	30
Taula 3. Barne orduak.....	42
Taula 4. Amortizazioak.....	42
Taula 5. Gastuak.....	42
Taula 6. Aurrekontua.....	42

1.2. IRUDIEN ZERRENDA

Irudia 1. Bibrazioak aztertzeko sistema baten diseinu zikloa.....	12
Irudia 2. Modelizatu beharreko sistema.....	16
Irudia 3. Kotxea modelizatzeko lehenengo aukera.....	16
Irudia 4. Kotxea modelizatzeko bigarren aukera.....	17
Irudia 5. Nazioarteko Zimurtasun Indizea lortzeko erabiltzen den eredua.....	18
Irudia 6. Bibrazioen sailkapena. Laukiaren barruan, atal honetan aurkeztuko direnak.	19
Irudia 7. Ikasketa egiteko erabiliko den behin betiko eredua.....	21
Irudia 8. Eredu matematikoa.....	22
Irudia 9. Eredu matematiko baliokidea.....	22
Irudia 10. m1 masa isolatua.....	23
Irudia 11. m2 masa isolatua.....	23
Irudia 12. D anplifikazio dinamikoaren faktorea β eta ξ parametroen menpe.....	24
Irudia 13. Hurbilagoko D anplifikazio dinamikoaren faktorea β eta ξ parametroen menpe.....	25
Irudia 14. D anplifikazio dinamikoaren faktorea β parametroaren menpe, ξ -ren balio desberdinentzako.....	25
Irudia 15. Eredu matematiko baliokidea (3AG).....	27
Irudia 16. m1 masa isolatua.....	27
Irudia 17. m2 masa isolatua.....	27
Irudia 18. ma masa isolatua.....	28
Irudia 19. Sistemaren sarrera eta erantzun kurbak.....	31

Irudia 20. Mahai kitzikatzaile eta masen desplazamenduak, hurrenez hurren: $\bar{\omega}= 1$ rad/s, $\bar{\omega}= 5$ rad/s, $\bar{\omega}= 15$ rad/s, $\bar{\omega}= 25$ rad/s.....	32
Irudia 21. m1 masaren desplazamenduaren anplitudea kitzikadura maiztasunaren arabera.....	32
Irudia 22. m2 masaren desplazamenduaren anplitudea kitzikadura maiztasunaren arabera.....	33
Irudia 23. Lehenengo bibrazio modua	34
Irudia 24. Bigarren bibrazio modua	34
Irudia 25. Sistemaren sarrera eta erantzun kurbak	35
Irudia 26. m1 masaren anplitudearen balio absolutua bi kasuetan (2AG, 3AG).....	36
Irudia 27. m2 masaren anplitudearen balio absolutua bi kasuetan (2AG, 3AG).....	37
Irudia 28. Gantt diagrama.....	40

1.3. AKRONIMOEN ZERRENDA

MTBM: Mekanismoen Teoria eta Bibrazio Mekanikoak	1-9-14-15-44
BIE: Bilboko Ingeniaritza Eskola	8-9
GrAL: Gradu Amaierako Lana.....	8-15-43
AG: Askatasun Gradu.....	1-8-11-13-15-16-17-18-22-26-27-28-33-35-37
BAE: Bibrazioen Analisi Esperimentala	8-11
2D: 2 Dimentsio	16-24-25-41
3D: 3 Dimentsio	16-24-41
IRI: Índice de Regularidad Internacional (Nazioarteko Zimurtasun Indizea)..	17-18-21-30
HB: Hasierako Baldintzak.....	19
SI: Sistema Internazionala	30

2. SARRERA

Dokumentu honetan, Bilboko Ingeniaritza Eskolan (BIE) garatu den Industria Teknologiaren Ingeniaritza Gradurako Gradu Amaierako Lana (GrAL) aurkezten da. Izenburuak esaten duen bezala, bibrazio mekanikoen isolamenduaren ikasketa teorikoa egingo da. Ikasketa egiteko erabiliko den modeloak 2AG izango ditu hasieran, eta behin absortsorea gehituta, 3AG. Modeloak, errepideak kotxe batean eragindako mugimendu bertikala simulatuko du.

Hasteko, lanaren testuingurua azalduko da, non bibrazio mekanikoei buruzko informazio orokorra aurkeztuko den besteak beste. Gainera, bibrazio mekanikoen isolamenduaren eta bibrazioen analisi esperimentalaren (BAE) beharra ere adieraziko dira. Horretaz gain, lanaren irismena eta helburuak definituko dira, hau da, lanaren nondik norakoak eta bete nahi diren lehen zein bigarren mailako helburuak.

Lanarekin jarraitzeko, honen onurak aztertuko dira eta lana aurrera eramateko dauden alternatiba desberdinak. Aurkeztutako alternatiben artean, soluzioaren aukeraketa eta honen deskribapena egingo da.

Metodologiari dagokionez, ikasketa egiteko erabiliko den modeloa deskribatuko da behar beste zehaztasunekin. Aurretik aipatu den bezala, honek hasieran 2AG izango ditu eta gero 3AG, izan ere, hasieran 2 masa besterik ez dira egongo, eta absortsorea gehitzean, masa bat (eta malguki bat) gehituko dira. Ildo beretik, lana burutzeko zereginen deskribapena eta Gantt diagrama aurkeztuko dira, non zereginak kronologikoki adieraziko diren. Lana egiteko erabilitako teknika eta baliabideak ere aipatuko dira.

Alderdi ekonomikoan, aurrekontua egingo da. Amaitzeko, lanetik ateratako konklusioak aurkeztuko dira. Informazio iturriak zerrendatuko dira, bai lana hasi aurretik behar izandako informazioa biltzeko, zein prozesuan zehar erabilitakoak Bukaerako eranskinetan, kalkuluetan erabilitako kodeak eta laborategi praktika baten proposamena aurkeztuko dira.

3. TESTUINGURUA

Testuinguruari dagokionez, atal honetan, aplikazio eremua eta eremu teknologikoa zehazteaz gain, bibrazio mekanikoen isolamenduaren garrantzia eta moduak, eta bibrazioen analisi experimentalaren beharra azalduko dira. Azkenik, bibrazioak jasango dituen sistema baten diseinuan jarraitu beharreko fluxu diagrama azalduko da.

3.1. APLIKAZIO EREMUA

Lanaren aplikazio eremua, bere muina ikasketa teorikoa denez gero, irakaskuntza izango da. Hain zuzen ere, BIEn, Teknologiaren Ingeniaritza Graduak 3.mailan ikasten den MTBM irakasgaia. Irakasgai hau Ingeniaritza Mekanikoko departamentuaren barnean aurkitzen da, beraz, klase magistraletan erabiltzeko materialaz gain, laborategiko praktika baten proposamena ere egingo da, departamentu honek daukan laborategian prestatu daitekeena.

3.2. JAKINTZA EREMUA

Aurretik esan den bezala, egingo diren kalkuluak eta erabiliko diren kontzeptuak bibrazioen teoriaren parte dira, zeina aldi berean makinaren dinamikaren barnean dagoen.

Analisi dinamikoa, sinplifikazio hipotesi batzuk onartzen dituen eredu matematiko batekin egin behar da derrigorrez. Hipotesi hauen errealitatearekiko gertutasunaren arabera, ereduak ere errealitatearekiko gertuago edo urrunago egongo da. Esan beharra dago, ereduaren konplexutasuna segurtasunarekin ere erlazionatuta dagoela, eta kasu askotan nahitaezkoa izan daiteke emaitza teorikoak prototipoekin egindako entsegu experimentalen bidez egiaztatzea.

Beraz, makinaren dinamikaren helburuetako bat eredu matematiko onargarriak lortzea da askatasun gradu kopuru minimoa erabiliz eta portaera dinamikoa era fidagarri batean irudikatuko dutenak.

3.2.1. BIBRAZIOEN TEORIA

Makinaren dinamikaren barruan solido zurrunaren eta solido deformagarriaren dinamika aurkitzen dira. Bigarren hau, solido deformagarriaren dinamika, bibrazioen teoria izenez ere ezaguna da, eta hori da hain zuzen ere txosten honetan landuko dena.

Bibrazioen teoria erabiltzean, kontuan hartzen da kanpo indarren aldakortasuna; karga dinamikoen balioa, norabidea, noranzkoa eta/edo aplikazio puntua denboran zehar aldakorrak direla.

Bibrazioen inguruko ikerkuntzak ugaritu egin dira, asko direlako bibrazioek sortu ditzaketen arazoak. Besteak beste, bibrazioak makina birakarien desorekagatik sortu daitezke eta inguruko makinen funtzionamendu egokian eragin. Bestalde, marruskadurak zaratak eta bibrazioak sortu ditzake eta higadura areagotu. Hala ere, bibrazioak erabilgarriak izan daitezke batzuetan, adibidez piezen garraiorako mahai bibragailuetan.

3.3. BIBRAZIO MEKANIKOEN ISOLAMENDUA

Bibrazioen maila kontrolatu edo murrizteari bibrazioen kontrola deritzo. Kasu batzuetan ordea, helburua bibrazioen transmisioa guztiz ekiditea izango da, sistematik ingurunera edo ingurunetik sistemara. Horrela bada, bibrazioen isolamenduarekin lanean gaudela esango da.

Bibrazioak kontrolatzeko ikertu beharreko lehenengoa, bibrazioen iturria aldatu edo moldatzea da. Metodo hau ezin da beti erabili, kitzikapen edo bibrazio iturri batzuk aldaezinak direlako. Hau da hain zuzen ere hemen aztertuko den kasua: errepidearen irregulartasunak ezin izango direlako kontrolatu.

Bibrazioak kontrolatu eta isolatzeko metodo desberdinak bi talde nagusitan banatuko dira; metodo aktiboak eta metodo pasiboak.

3.3.1. METODO AKTIBOAK

Metodo aktiboek bibrazioen isolamendu edo kontrola lortuko dute kanpo sistema baten bidez. Isolamendu sistema aktibo hau, sentsore, eragingailu eta kontroladore baten bidez osatuta dago.

Sistema konplexuak dira, baina lan egoera desberdinetara (kitzikadura mota desberdinak eta maiztasun tarte handia) moldatzeko ahalmena dute. Isolamendu sistemak aztergai den sistemaren parametroren bat aldatuko du. Beraz, sistemaren parametro mekanikoak ez dira konstanteak izango (zurruntasuna edo motelgarritasuna kitzikapenaren menpe egongo dira).

Bibrazioen isolamendu aktiboaren adibide ona dira kotxe batzuetan erabiltzen den esekidura sistema, non motelgarritasuna errepidearen profilararen arabera aldatzen den.

Beste aukera bat da, sistemaren parametro mekanikoak aldatu ordez, kanpo potentzia iturri baten bidez sistemaren gainean esfortzuak sortzea, anplitudea murriztuko dutenak.

3.3.2. METODO PASIBOAK

Bibrazioen transmisioa murrizteko, sistema eta zimentazioaren artean elementu malgu deformagarria (isolatzailea) jar daiteke. Honek bibrazio energia disipatuko du. Metalezko malgukia, elastomeroa, etab. izan daiteke.

Bibrazioen kontrolerako hiru modu nagusi bereizten dira: maiztasun naturalen kontrola, motelgarritasunaren sartzea, eta absortsoreen erabilera.

Maiztasun naturalen kontrolean egiten dena da sistemaren maiztasun naturalen balioa eta kitzikadura maiztasunaren balioa urrunduta mantentzea erresonantzia arriskurik ez izateko. Kitzikadura maiztasuna askotan moldatu ezin daitekeen faktorea denez, maiztasun naturalak moldatzen dira sistemaren masa edo zurruntasuna aldatuz.

Beste sistema batzuetan, ezin da erresonantzia ekidin lan egoera guztietan, beraz, motelgarritasuna sartzen zaie gehiegizko anplifikazio dinamikoa egon ez dadin. Sistema baten motelgarritasuna handitzeko hainbat aukera daude, esaterako material laminatuak, biskoelastikoak, perno edo errematxe loturak, etab. sartzea.

Azkeneko aukera, eta lan honetan erabiliko dena, absortsore bat gehitzea da. Absortsore bat bibrazio neutralizatzaile bat da, malguki eta masa (eta motelgailu) batez osatua. Hau gehitzean, sistemari AG bat gehitzen zaio masa berri bat egongo delako eta honen parametro mekanikoak moldatu egingo dira sistemaren maiztasun naturalak kitzikapen maiztasunetik urrun mantentzeko.

3.4. BIBRAZIOEN ANALISI ESPERIMENTALA


Aurretik aipatu den bezala, kasu batzuetan analisi esperimentalak nahitaezkoa izan daiteke emaitza teorikoak egiaztatzeko. BAE sistema mekaniko larriak aztertu eta garatzeko prozedura erabilienetarikoa da. Hauen adibide ona zubiak edo eraikin bereziak dira, zeinen portaera guztiz ulertzeko eredu eskalatuan entseguak egiten diren.

3.5. FLUXU DIAGRAMA

Ondorengo fluxu diagraman adierazten den bezala, bibrazioak aztertzeko sistema baten diseinu zikloan hainbat etapa daude. Lehenengoa, sistema mekanikoaren diseinua da; gero, analisi teoriko edota esperimentalak; azkenik, egiaztapenak eta egin beharreko aldaketak etorrirako dira.

Lan honetan, analisi dinamikoaren barruan (bigarren etapa), analisi teorikoa (urdinez adierazita) garatuko da. Lan teorikoa soilik garatuko denez, emango diren lau urrats nagusiak honakoak dira:

1. Modelo matematikoa aukeratzea. Pausorik garrantzitsuena da eta errealitatea irudikatzeko eredu posibleak 6.1. atalean aurkeztuko dira.
2. Mugimenduaren ekuazioak lortzea. Erabiliko den modelo sistema diskretua izango denez, D'Alembert-en printzipioa aplikatuz ekuazio diferentzial arruntak lortuko dira.
3. Ekuazioen soluzioa lortzea. Mugimenduaren ekuazioen soluzioa kitzikapenaren menpekoa denez, kitzikadura mota eta erantzun desberdinak 6.2. atalean aurkeztuko dira.
4. Emaitzen interpretazioa.



Irudia 1. Bibrazioak aztertzeko sistema baten diseinu zikloa.

4. IRISMENA ETA HELBURUAK

Atal honetan, lanaren irismena eta helburuak azalduko dira. Hasteko, lanaren nondik norakoak definituko dira, hasieratik bukaerara lortu nahi diren helburuak bete ahal izateko. Gero, helburu nagusia eta bigarren mailako helburuak zerrendatuko dira.

4.1. IRISMENA

Lanaren muina ikasketa teorikoa denez, hasiera informazio bilketarekin emango zaio, gero kalkuluak egingo dira, eta amaieran erantzunen interpretazioa eta ondorioak aterako dira.

Lehenengo, bibrazioei buruzko informazioa bilatu eta irakurriko da, bai unibertsitateko liburutegian eskura dauden liburuetan, zein Interneten aurki daitezkeen informazio iturrietan. Horrela, gaiaren inguruko kontzeptu teorikoak ulertu edota gogoratuko dira eta bibrazioei buruzko jakintza zabala izango da.

Ondoren, kontzeptu horiek aplikatzeko aukera desberdinak aztertuko dira; eredu matematikoa egiteko, baita kitzikadura mota aukeratzeko ere. Aukerak definituta daudenean, landuko den eredu eta kitzikadura hautatuko dira eta kalkulu teorikoak garatuko dira. Kalkulu teorikoak laguntzeko, prototipo posible batek izango lituzkeen parametroekin zenbakizko kalkuluak eta grafikoak egingo dira.

Lanari amaiera emango zaio aurkeztutako emaitza eta grafikoetatik ondorioak ateraz eta etorkizunean planteatu litekeen laborategi praktika baten proposamena eginez.

4.2. HELBURUAK

4.2.1. HELBURU NAGUSIA

Lanaren helburu nagusia bibrazio mekanikoen inguruko eta hauen isolamenduari buruzko ikasketa teorikoa egitea da. Bibrazioei buruzko orokortasunak, isolamendu motak, etab. azalduko dira eta proposatutako ereduaren ikasketa osoa egingo da (erantzunak, bibrazio moduak, maiztasun naturalak...). Lan guztian zehar azalduta dagoen bezala, aztertuko den modeloak 2AG izango ditu eta bibrazioak isolatzeko 3AG dituen eredu aztertuko da.

4.2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Ikasketa teoriko baten pausoak. Helburu nagusia ikasketa teorikoa egitea denez, bigarren mailako helburu bat, hain zuzen ere, ikasketa teoriko bat zelan egiten den ikastea izango da. Aurreko ataleko fluxu diagraman oinarrituta, ikasiko da zein pausu ematen diren sistema baten ikasketa oso bat egiterako orduan.

- Ikasleentzako material teorikoa. Gainera, MTBM irakasgaiko ikasleentzako lagungarria izan daitekeen material teorikoa sortuko da, errepidearen ondorioz kotxe batean ematen diren mugimendu bertikalak aztertzeko eredu matematiko bat definitzetik, soluzioa lortu arte.
- Ikasleentzako material praktikoaren proposamena. Ariketa teorikoaz gain, ikasleek klasean ikasitakoa ikusteko eta hobeto ulertzeko, laborategi praktika baten proposamena egingo da, aipatutako irakasgaiaren alde praktikoa indartzeko asmoarekin.

5. ONURAK

Atal honetan, GrAL honek ekar ditzakeen onurak azalduko dira. Onura hauek, finkatutako helburuetan oinarrituta daude eta lanaren egileari zein etorkizuneko ikasleei edota besterik gabe lana irakurriko dutenei aplikagarriak dira.

Lana lagungarria izango da etorkizuneko MTBM irakasgaiko ikasleek bibrazioen teoriari buruzko kontzeptuak ulertu eta barneratzeko. Horretarako, AG anitzetako sistema baten bibrazio behartua aztertzeaz gain, bibrazioak jasango dituen sistema baten diseinu eta analisi prozesua azalduko da, edo bibrazioen isolamendu zein kontrolari buruzko orokortasunak esplikatu dira adibidez.

Laborategi praktikaren proposamenak, teoriako adibidean hautatu den bibrazioentzako isolamendu metodoa ikasleek era praktikoa batean ikus dezatela ahalbidetuko luke gainera.

Laburbilduz, eta esan bezala, finkatutako helburuak kontuan izanda, lana onuragarria izango da egileak edo irakurleak etorkizunean aurki ditzakeen diseinu edo proiektu teoriko-praktikoak garatzeko eman beharreko pausoak ikasteko, bai bibrazioen inguruan, zein beste edozein eremu teknologikotan. Baita ere, klase magistraletako kontzeptu teorikoak ikasi, eta teorikoki klasean ikusitakoa era praktikoa indartzeko aukera emango du.


6. ALTERNATIBEN ANALISIA

Alternatiben analisisian, bi atal nagusi garatuko dira. Lehenengo, kotxearen modelizaziorako eredu posibleen aurkezpena egingo da, bakoitzaren abantaila eta desabantailak azalduz. Bigarrenengan, mahai kitzikatzailearen bidez inposatu litezkeen kanpo indar desberdinak zerrendatuko dira. Hau garrantzitsua izango da, sistemaren erantzuna lortzeko egin beharreko kalkuluetan desberdintasunak sortuko dituelako.

6.1. EREDUAK


Sistema baten diseinu eta ikasketari buruzko fluxu diagraman azaldu den bezala (3.5. atalean), analisi teoriko bat egiten denean eman beharreko lehenengo pausoa - zailena eta garrantzitsuen - erabiliko den modelo matematikoa aukeratzea da.

Lanean zehar errepikatu den bezala, modeloaren bidez adierazi nahi dena errepidearen itxurak kotxe baten mugimendu bertikalean duen eragina da. Hori adierazteko aukera ugari daude, nahi den errealitatearekiko zehaztasuna, AG kopurua, sinplifikazio hipotesi desberdinak... kontuan izanda.




Irudia 2. Modelizatu beharreko sistema.

1. Hartu daiteke kotxea masa puntual bakarra bezala, zeinak mugimendu bertikala jasango duen errepidearen itxuragatik. Kasu honetan AG bakarra dago. Modelo fisikotik (3D), modelo matematikoa (2D) lortuko da.



Irudia 3. Kotxea modelizatzeko lehenengo aukera.

2. Hartu daiteke kotxea bi masa puntual bezala, suspentsioan dagoen masa eta suspentsioan ez dagoena. Kasu honetan 2AG daude: esekiduran dagoen masaren (txasisa etab.) mugimendu bertikala eta esekiduran ez dagoen masaren (gurpilak) mugimendu bertikala.



Irudia 4. Kotxea modelizatzeko bigarren aukera.

Nabarmendu behar da bi kasu hauetan motelgarritasunik ez dela jarri, honek ariketari zailtasuna gehitzen diolako, eta egin nahi den ikasketa teoriko zein proposamen praktikorako beharrezkoa ikusten ez delako. Hala ere, laborategiko ikasketa esperimentalak egitekotan, c motelgarritasun hori kontuan hartu edo kalkulatu beharko litzateke, marruskadura bezalako efektuek eragindakoa izanik.

6.1.1. NAZIOARTEKO ZIMURTASUN INDIZEA

Kotxe batean dagoen edozein pertsonak bidaia seguru eta eroso bat nahi du, horretarako, errepideen kalitatea garrantzitsua da, ibilgailuaz gain. Errepideen kalitatea neurtzeko hainbat adierazle daude, eta horietako bat Nazioarteko Zimurtasun Indizea (Índice de Regularidad Internacional, IRI) da, Espainian, beste herrialde batzuetan bezala, zoladura baten erregularitasuna neurtzeko erabiltzen dena.

Adierazle honek errepideren kalitatea zehazten du gidariaren erosotasun gradua kontuan hartuz. Bere kalkuluan faktore ugariak dute eragina, esaterako tenperatura aldaketak, euriak edo errepidearen adina.


Errepideak sortutako ondulazioen intentsitate eta maiztasunaren arabera gidariak efektuak jasango ditu. Efektu hauek erosotasun zein segurtasunean eragina izango dute. Laburbilduz, errepidearen erregularitasun faltak erosotasuna eta segurtasuna erasotzen ditu.

IRIaren definizioa, sistema dinamikoen bibrazio mekanikoei lotutako kontzeptuak erabiliz egin zen. Horretarako, ibilgailu baten laurdena irudikatzen zuen eredua erabili zen.

Jarraian dagoen irudian ikus daitekeen bezala, modeloak elkarri lotutako bi masa ditu; suspentsioan dagoen masa (ibilgailu ideal baten masa laurdena) eta esekiduran ez dagoen masa (pneumatikoa eta ardatza). Bi masen lotura paraleloan jarritako malguki eta motelgailu baten bidez egin da eta pneumatiko eta lurraren arteko kontaktua malguki ideal batekin ordezkatu da ere.

Elementu hauen ekuazio dinamikoei sistema bat osatuko dute, sarrera datua errepidearen erregulartasuna duena. Sistema 2AG dituen modelo dinamikoa da eta kanpo indar batez (errepidearen profila) eszitatua egongo da.


Ekuazio diferentzialen zenbakizko soluzioak kalkulatu, masen desplazamendua lortuko da. Behin errepidearekiko erabiltzailearen mugimendua kalkulatu denean, ibilitako distantziagatik zatituko da IRIa lortzeko, konbenioz finkatutako baldintza eta datu batzuk betez (masak, abiadurak, distantziak...).



Irudia 5. Nazioarteko Zimurtasun Indizea lortzeko erabiltzen den eredua.

6.2. KITZIKADURA. BIBRAZIO BEHARTU MOTA

Bibrazioak orokorrean behartuak edo askeak izan daitezke. Ikasketa honetan bibrazio behartuak bakarrik izango dira kontuan, zeinak kitzikadura motaren arabera honela sailkatu daitezkeen:



Irudia 6. Bibrazioen sailkapena. Laukiaren barruan, atal honetan aurkeztuko direnak.

Sistema baten diseinu eta ikasketari buruzko fluxu diagraman azaldu den bezala (3.5. atalean), analisi teoriko bat egiten denean eman beharreko bigarren eta hirugarren pausoak, mugimenduaren ekuazioak eta ekuazioen soluzioa lortzea dira hurrenez hurren. Mugimenduaren ekuazioen soluzioa kitzikapenaren menpekoa denez, kitzikadura motak eta bakoitzak sortutako erantzunak zerrendatuko dira.

Aipatu behar da, soluzio orokorra erantzun homogeen eta erantzun partikularraren arteko batura izango dela kasu guztietan.

$$z(t) = z_h(t) + z_p(t) \quad (1)$$

- $z_h(t)$ → Ekuazio homogeen soluzioak, erantzunaren zati iragankorra adierazten du. Denbora bat pasatu denean termino hau desagertu egingo da.
- $z_p(t)$ → Ekuazioaren soluzio partikularrak, erantzunaren zati iraunkorra adierazten du, kitzikadurak irauten duen bitartean mantenduko dena.

Beraz, erantzun homogea bibrazio askeetatik lortuko da, hasierako baldintza (HB) batzuekin eta dagokion soluzio partikularra kitzikadura motaren arabera izango da. Azken hau da hain zuzen ere hurrengoko puntuetan azalduko dena, egonkorra.

6.2.1. BULKADA FUNTZIOA SARRERAN

- Sarrerako indarra adierazteko formula matematikoa: $f(t) = I\delta(t)$
- Sistemak emango duen erantzun partikularra: $z_p(t) = \frac{Ie^{-\xi\omega t}}{m\omega_D} \sin(\omega_D t)$
- Bibrazio moteldudun maiztasuna: $\omega_D = \omega\sqrt{1 - \xi^2}$
- Sistemaren maiztasun naturala: $\omega = \sqrt{\frac{k}{m}}$
- Motelgarritasun erlatiboa: $\xi = \frac{c}{c} = \frac{c}{2m\omega}$

6.2.2. MAILA FUNTZIOA SARRERAN

- Sarrerako indarra adierazteko formula matematikoa: $f(t) = I$
- Sistemak emango duen erantzun partikularra: $z_p(t) = \frac{I}{k} \left[1 - \frac{e^{-\xi\omega t}}{\sqrt{1-\xi^2}} \cos(\omega_D t - \theta) \right]$
- Bibrazio moteldudun maiztasuna: $\omega_D = \omega \sqrt{1-\xi^2}$
- Sistemaren maiztasun naturala: $\omega = \sqrt{\frac{k}{m}}$
- Motelgarritasun erlatiboa: $\xi = \frac{c}{\bar{c}} = \frac{c}{2m\omega}$
- $\theta = \arctg\left(\frac{\xi}{\sqrt{1-\xi^2}}\right)$

6.2.3. MALDA FUNTZIOA SARRERAN

- Sarrerako indarra adierazteko formula matematikoa: $f(t) = It$
- Sistemaren erantzun part.: $z_p(t) = \frac{I}{k} t - \frac{I}{k\omega_D} [e^{-\xi\omega t} \sin(\omega_D t - 2\theta) + \sin(2\theta)]$
- Bibrazio moteldudun maiztasuna: $\omega_D = \omega \sqrt{1-\xi^2}$
- Sistemaren maiztasun naturala: $\omega = \sqrt{\frac{k}{m}}$
- Motelgarritasun erlatiboa: $\xi = \frac{c}{\bar{c}} = \frac{c}{2m\omega}$
- $\theta = \arctg\left(\frac{\xi}{\sqrt{1-\xi^2}}\right)$

6.2.4. KITZIKADURA HARMONIKOA SARRERAN


- Sarrerako indarra adierazteko formula matematikoak bi itxura izan ditzake: $f(t) = f_0 \cos(\bar{\omega}t)$ edo $f(t) = f_0 \sin(\bar{\omega}t)$
- Sistemak emango duen erantzun partikularra, sarreraren arabera hurrenez hurren: $z_p(t) = X e^{-\xi\omega t} \cos(\omega_D t - \varphi)$ edo $z_p(t) = X e^{-\xi\omega t} \sin(\omega_D t - \varphi)$
- Bibrazio moteldudun maiztasuna: $\omega_D = \omega \sqrt{1-\xi^2}$
- Sistemaren maiztasun naturala: $\omega = \sqrt{\frac{k}{m}}$
- Motelgarritasun erlatiboa: $\xi = \frac{c}{\bar{c}} = \frac{c}{2m\omega}$
- Soluzio partikularraren eta kitzikaduraren arteko desfasea: $\varphi = \arctg\left(\frac{2\xi\beta}{1-\beta^2}\right)$
- Erantzunaren anplitudea edo anplitude dinamikoa: $X = X_{est} D$
- Anplitude estatikoa: $X_{est} = \frac{f_0}{k}$
- Anplifikazio dinamikoaren faktorea: $D = \frac{1}{\sqrt{(1-\beta^2)^2 + (2\xi\beta)^2}}$
- Kitzikadura maiztasuna eta sistemaren maiztasun naturalaren arteko erlazioa: $\beta = \frac{\bar{\omega}}{\omega}$

7. SOLUZIOAREN AUKERAKETA

Atal honetan, aurreko atalean proposatutako alternatiba desberdinetatik, aztertuko den eredu definitiboaren aukeraketa aurkezten da. Ere, ereduari aplikatuko zaion kitzikadura mota definitzen da.

7.1. EREDUAREN AUKERAKETA

Aukeratuko den behin betiko eredu, proposatutako bigarrena izango da. Eredu hori baliogarri hartzen da, IRIak proposatutakoa ere kontuan hartzen duelako. IRIak kontuan hartzen du kotxearen laurdena, beraz horrelako 4 jarri ezkeroko kotxe osoaren ereduketa lortuko litzateke. Gainera, motelgarritasuna kenduz, kalkuluak egiteko eta praktikarako prototipo hipotetikoa egiteko errazagoa litzateke.



Irudia 7. Ikasketa egiteko erabiliko den behin betiko eredu.

7.2. KITZIKADURA MOTAREN AUKERAKETA

Mahai kitzikatzailearen bidez sartuko den kanpo indarra harmonikoa izatea erabaki da. Kasu honetan aproposena da, kalkuluak errazten dituelako batez ere.

Erantzunen kalkulua egiteko, matrizialki adierazitako mugimenduaren ekuazioak banandu edo desakoplatu beharko lirateke. Sarrera harmonikoa hautatzeak, banaketa egin behar izatea (eta ebatzi ostean, benetako erantzunak lortzeko oinarri aldaketa desegin behar izatea) ekiditen du.

Era berean, errepideak izan ditzakeen gora-behera orokorrak irudikatzeak funtziorik egokiena da. Beste funtzioek uneko edo bapateko errepidearen irregulartasunak adieraziko lituzkete (eskailera-maila bat edo sakaguneak adibidez).


Amaitzeko, kitzikadura hori sortzeko mahai kitzikatzailea lortzea edo sistema baliokidea (biela biradera motako mekanismoa adib.) sortzea ez da zailegia izango.

8. METODOLOGIA

Atal honetan, erabakitako ereduaren analisia egiteko jarraituko diren pausoak eta kalkulu teoriko zein numerikoak azalduko dira. Maiztasun naturalak, bibrazio moduak, sistemaren erantzuna kalkulatuko dira besteak beste, 2AG sistemarentzako, baita 3AG dituen sistemarentzako. Dena ondo ulertu dadin, ahal den beste grafiko zein irudi lagungarri erabiliko dira.

8.1. BI ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA

Hasiera batean, irudian ikusten den bezala, 2AG dituen sistema aztertuko da, bi masa puntualez osatutakoa.




Irudia 8. Eredu matematikoa.

Malgukiak paraleloan daudenez (hasiera eta bukaera elementu berdinetan dituzte), sistemaren sinplifikazioa egin daiteke.

Malgukiak paraleloan daudenean, k zurruntasun baliokidea honela kalkulatu da: $k_{baliokidea} = \sum k$

Ikus daiteke ere modelo teorikoan ez dela motelgarritasunik egongo, hots, $c = 0$ da.



Irudia 9. Eredu matematiko baliokidea.

$y_s(t)$ kanpo indarra edo sarrera izango da, bibrazioa behartuko duen mahai kitzikatzailerik edo eszitatzaileak inposatutako desplazamendua.

$y_1(t)$ eta $y_2(t)$, sistemaren askatasun graduak izango dira.

8.1.1. MUGIMENDUAREN ECUAZIOAK

Masa bakoitzean D'Alembert-en printzipioa aplikatuko da, hau da, kanpo eta barne indarren batura berdin zero dela.


$$\sum F = \sum F_e + \sum F_i = 0 \quad (2)$$

m_1 masa isolatuz eta $y_1 > y_2$ suposatuz, lortuko den ekuazioa:



Irudia 10. m_1 masa isolatua.

m_2 masa isolatuz eta $y_2 > y_s$ suposatuz, lortuko den ekuazioa:



Irudia 11. m_2 masa isolatua.

Beraz, sistemaren dinamika bertikalaren mugimenduaren ekuazioak (3 eta 4 ekuazioak berrantolatuz):

$$\ddot{y}_1 m_1 + 4k_1(y_1 - y_2) = 0 \quad (5)$$

$$\ddot{y}_2 m_2 - 4k_1(y_1 - y_2) + 4k_2(y_2 - y_s) = 0 \quad (6)$$

Mugimenduaren ekuazio horiek matrizialki adieraziz, honako sistema lortzen da:

$$\begin{bmatrix} m_1 & 0 \\ 0 & m_2 \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} \ddot{y}_1 \\ \ddot{y}_2 \end{Bmatrix} + \begin{bmatrix} 4k_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} y_1 \\ y_2 \end{Bmatrix} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 4k_2 y_s \end{Bmatrix} \quad (7)$$

- Masa matrizea, $[M] = \begin{bmatrix} m_1 & 0 \\ 0 & m_2 \end{bmatrix}$
- Zurruntasun matrizea, $[K] = \begin{bmatrix} 4k_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 \end{bmatrix}$
- Ezezagunen bektorea (sistemaren erantzuna), $\{y\} = \begin{Bmatrix} y_1 \\ y_2 \end{Bmatrix}$
- Kanpo indar bektorea, $\{f(t)\} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 4k_2 y_s \end{Bmatrix}$

8.1.2. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK

Sistema baten maiztasun naturalak, sistemaren ezaugarri dira eta masa eta zurruntasunaren menpe daude. Jarraian agertzen da nola kalkulatu diren. Esan beharra dago, maiztasun naturalen kopurua, mugimenduaren ekuazio kopurua eta askatasun gradu kopurua bat etorriko direla beti.

$$|[K] - \omega^2[M]| = 0 \rightarrow \begin{vmatrix} 4k_1 - \omega^2 m_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 - \omega^2 m_2 \end{vmatrix} = 0 \rightarrow \omega_1, \omega_2 \quad (8)$$


$\bar{\omega}$ kitzikapen maiztasuna izanik, sistema erresonantzian sartuko da maiztasun naturaletako bat honekin bat datorrenean. Sistema erresonantzian sartzen denean,

desplazamenduen anplitudeak asko handitzen direnez, sistema kolapsora heldu daiteke. Kitzikadura harmonikoa aurkeztu zeneko ekuazio batzuk gogoratzuz:

- Sarrerako indarra: $y_s(t) = f_0 \sin(\bar{\omega}t)$
- Sistemaren erantzun partikularra -erantzun total gisa hartuko dugu, erantzun iragankorra mesprezatzuz-: $y(t) = X e^{-\xi\omega t} \sin(\omega_D t - \varphi)$
- Erantzunaren anplitudea: $X = X_{est} D$
- Anplifikazio dinamikoaren faktorea: $D = \frac{1}{\sqrt{(1-\beta^2)^2 + (2\xi\beta)^2}}$
- Motelgarritasun erlatiboa: $\xi = \frac{c}{\bar{c}} = \frac{c}{2m\omega}$
- $\beta = \frac{\bar{\omega}}{\omega}$

Ondorengo grafikoetan, D anplifikazio dinamikoaren 3D eta 2D adierazpenak ikus daitezke. Ikus daitezkeen bezala, $D = f(\beta, \xi)$ da, zeinak aldi berean kitzikadura eta maiztasun naturalen menpe eta motelgarritasunaren menpe dauden hurrenez hurren.

$$D = \frac{1}{\sqrt{(1-\beta^2)^2 + (2\xi\beta)^2}} \quad (9)$$




Irudia 12. D anplifikazio dinamikoaren faktorea β eta ξ parametroen menpe.

Datorren grafikoan hobeto ikus daiteke zein den parametro bakoitzaren eboluzioa. Azkar antzeman daiteke $\beta = \frac{\bar{\omega}}{\omega} \approx 1$ eta $\xi = \frac{c}{\bar{c}} \approx 0$ direnean D anplifikazio dinamikoaren faktorearen hazkundera izugarria dela, eta horren ondorioz, erantzunaren anplitudea ere, hau da, masen desplazamendua.


Beraz, betetzen da teorian esandakoa: maiztasun naturala eta kitzikadura maiztasuna bat datozenean (edo antzeko balioak dituztenean) sistemaren anplitudeak asko handituko dira.

Gainera, amplifikazio dinamikoaren faktorearen formulari erreparatuz, honek infinitura joko du $\beta = 1$ eta $\xi = 0$ betetzen denean izendatzailea zero delako.



Irudia 13. Hurbilagoko D amplifikazio dinamikoaren faktorea β eta ξ parametroen menpe.

Aztertu beharreko sisteman motelgarritasunik kontuan ez hartzea erabaki denez, grafiko honen 2D adierazpena aztertuko da orain. Ikusten da motelgarritasun erlatiboaren balioen arabera, $D = f(\beta)$ kurba desberdina dela. Hemen interesgarriena horia da ($\xi = 0$), zeinak lanean aztertzen den sistemaren erresonantzia egoeran gertatzen dena adierazten duen, $\beta = 1$ denean. Kurba guztien ξ balioak grafikoan adierazita daude.



Irudia 14. D amplifikazio dinamikoaren faktorea β parametroaren menpe, ξ -ren balio desberdinentzako.

8.1.3. BIBRAZIO MODUAK

Bibrazio moduak lortzeko, maiztasun naturalak erabiliko dira, maiztasun natural bakoitza bibrazio modu bati lotuta doalako.

$$[[K] - \omega^2[M]] \begin{Bmatrix} Y_1 \\ Y_2 \end{Bmatrix} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 0 \end{Bmatrix} \quad (10)$$

Lehenengo ekuazioan lehenengo maiztasun naturala ordezkaturaz, lehen erlazioa eta beraz lehen bibrazio modua lortuko da. Era berean, bigarren bibrazio modua lortzeko, ekuazio berdina eta bigarren maiztasun naturala erabiliko dira.

$$(4k_1 - \omega_1^2 m_1)Y_1 - 4k_1 Y_2 = 0 \rightarrow \frac{Y_1^1}{Y_2^1} = A \rightarrow 1.\text{BIBRAZIO MODUA} \quad (11)$$

$$(4k_1 - \omega_2^2 m_1)Y_1 - 4k_1 Y_2 = 0 \rightarrow \frac{Y_1^2}{Y_2^2} = B \rightarrow 2.\text{BIBRAZIO MODUA} \quad (12)$$

Behin bi bibrazio moduak lortu direla, bibrazio moduen matrizea sortu daiteke.

$$[X] = \begin{bmatrix} \begin{Bmatrix} Y_1^1 \\ Y_2^1 \end{Bmatrix} & \begin{Bmatrix} Y_1^2 \\ Y_2^2 \end{Bmatrix} \end{bmatrix} = \begin{bmatrix} A & B \\ 1 & 1 \end{bmatrix} \quad (13)$$

8.1.4. SISTEMAREN ERANTZUNA

Aztertuko den adibidean indar kitzikatzailea harmonikoa hautatu denez, oinarri aldaketa eta ekuazioen desakoplamendua egin gabe lortu daitezke sistemaren erantzunak. Kasu honetan, 2AG dituen sistemarentzako ebatziz:

$$\begin{bmatrix} m_1 & 0 \\ 0 & m_2 \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} \ddot{y}_1 \\ \ddot{y}_2 \end{Bmatrix} + \begin{bmatrix} 4k_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} y_1 \\ y_2 \end{Bmatrix} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 4k_2 y_s \end{Bmatrix} \quad (7)$$

- Indar kitzikatzailea,

$$y_s(t) = f_0 \sin(\bar{\omega}t) \quad (14)$$

- Sistemaren erantzuna,

$$y_1(t) = Y_1 \sin(\bar{\omega}t) \quad (15)$$

$$y_2(t) = Y_2 \sin(\bar{\omega}t) \quad (16)$$

* Indar kitzikatzailea $y_s(t) = f_0 \cos(\bar{\omega}t)$ izango balitz, erantzunetan ere $\cos(\bar{\omega}t)$ jarriko litzateke $\sin(\bar{\omega}t)$ ordeaz.


Y_1 eta Y_2 anplitudeak lortzeko, sistema hau ebatziko da Cramer bidez:

$$[[K] - \bar{\omega}^2[M]] \begin{Bmatrix} Y_1 \\ Y_2 \end{Bmatrix} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 4k_2 f_0 \end{Bmatrix} \quad (17)$$

$$Y_1 = \frac{\begin{vmatrix} 0 & -4k_1 \\ 4k_2 f_0 & 4k_1 + 4k_2 - \bar{\omega}^2 m_2 \end{vmatrix}}{\begin{vmatrix} 4k_1 - \bar{\omega}^2 m_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 - \bar{\omega}^2 m_2 \end{vmatrix}} \quad Y_2 = \frac{\begin{vmatrix} 4k_1 - \bar{\omega}^2 m_1 & 0 \\ -4k_1 & 4k_2 f_0 \end{vmatrix}}{\begin{vmatrix} 4k_1 - \bar{\omega}^2 m_1 & -4k_1 \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 - \bar{\omega}^2 m_2 \end{vmatrix}}$$

8.2. HIRU ASKATASUN GRADUTAKO SISTEMA

Bi askatasun gradutako sistemaren portaera guztiz aztertuta dagoela, goiko masaren mugimendu bertikala minimizatzeko, absortsorea gehituko zaio. Sistema berria ondorengo irudikoa izango da, eta orain 3AG izango ditu, masa puntual berria gehitu delako. Honen ebazpena egiteko aurretik jarraitutako pauso berdinak jarraituko dira.



Orain, absortsorearen diseinua egitea izango da helburu nagusia, mahai kitzikatzailak sarrera bezala bibrazio harmonikoa behartzen duen kasurako. Diseinua egitea, bere m_a eta k_a parametroak definitzea da.

$y_1(t)$, $y_2(t)$ eta $y_a(t)$, sistemaren askatasun graduak izango dira.

Irudia 15. Eredu matematiko baliokidea (3AG).

8.2.1. MUGIMENDUAREN EKUAZIOAK

m_1 masa isolatuz eta $y_1 > y_2$ eta $y_1 > y_a$ suposatuz, lortuko den ekuazioa:

$$m_1 \ddot{y}_1 + 4k_1(y_1 - y_2) + k_a(y_1 - y_a) = 0 \quad (18)$$


Irudia 16. m_1 masa isolatua.

m_2 masa isolatuz eta $y_2 > y_s$ suposatuz, lortuko den ekuazioa:

$$m_2 \ddot{y}_2 + 4k_2(y_2 - y_s) - 4k_1(y_1 - y_2) = 0 \quad (19)$$

Irudia 17. m_2 masa isolatua.

m_a masa isolatuz, lortuko den ekuazioa:



$$m_a \ddot{y}_a - k_a(y_1 - y_a) = 0 \quad (20)$$

Irudia 18. m_a masa isolatua.

Beraz, sistemaren dinamika bertikalaren mugimenduaren ekuazioak (18, 19 eta 20 ekuazioak berrantolatuz):

$$m_1 \ddot{y}_1 + 4k_1(y_1 - y_2) + k_a(y_1 - y_a) = 0$$

$$m_2 \ddot{y}_2 - 4k_1(y_1 - y_2) + 4k_2(y_2 - y_s) = 0$$

$$m_a \ddot{y}_a - k_a(y_1 - y_a) = 0$$

Mugimenduaren ekuazio horiek matrizialki adieraziz, honako sistema lortzen da:

$$\begin{bmatrix} m_1 & 0 & 0 \\ 0 & m_2 & 0 \\ 0 & 0 & m_a \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} \ddot{y}_1 \\ \ddot{y}_2 \\ \ddot{y}_a \end{Bmatrix} + \begin{bmatrix} 4k_1 + k_a & -4k_1 & -k_a \\ -4k_1 & 4k_1 + 4k_2 & 0 \\ -k_a & 0 & k_a \end{bmatrix} \begin{Bmatrix} y_1 \\ y_2 \\ y_a \end{Bmatrix} = \begin{Bmatrix} 0 \\ 4k_2 y_s \\ 0 \end{Bmatrix} \quad (21)$$

2AG zituen sisteman bezala, hemen masa matrizea, zurruntasun matrizea, ezezagunen bektorea eta kanpo indarren bektorea daude.

8.2.2. SISTEMAREN MAIZTASUN NATURALAK

Beste sistemarekin jarraitutako pausoeekin, orain ere maiztasun naturalak kalkulatu dira. Absortsorea duen sistemak, 3AG izango ditu, eta beraz 3 maiztasun natural.

$$|[K] - \omega^2[M]| = 0 \rightarrow \omega_1, \omega_2, \omega_3 \quad (22)$$

8.2.3. ABSORTSOREAREN DISEINUA ETA SISTEMAREN ERANTZUNA

